# UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 01/2019

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2019 KO URTARRILAREN 8AN** EGINDAKO **OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN ORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA **8 DE ENERO DE 2019.**

| ETORRITAKOAK: | ASISTENTES: | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE: | D. Jesús Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE: | Dª Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Agustín Valdivia Calvo jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Maite Iglesias Sánchez and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Jesús Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Dª Nuria Fernandez Castrillo and. | (PSE-EE-PSOE) |
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES: | D. José Mª Urdampilleta Zubitur jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | D. Pablo Barrio Ramirez jn | (EH BILDU) |
| | Dª Leire Elizegi Beloki and. | (EH BILDU) |
| | D. Gorka Lizarraga Erro jn. | (EH BILDU) |
| | Dª Kristina Bernal Etxeberria and. | (EH BILDU) |
| | Dª Estitxu Alkorta Barragán and | (EAJ-PNV) |
| | D. Jon Antxordoki Rekondo jn. | (EAJ-PNV) |
| | D. Arkaitz Naya Carrasco jn. | (ADLOP) |
| | D. David Ares Rodriguez jn. | (ADLOP) |
| | Dª Alicia Garcia Patino and. | (ADLOP) |
| | D. Alejandro Sáenz Muriel jn. | (PP) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO: | D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

| EZ ETORRIAK: | NO ASISTENTES: |
|---|---|
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR: | D. Ion Murua Guinea jn. |


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉ udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2019ko URTARRILAREN 8ko 18:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Jesús Mª Zaballos de Llanos Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 8 de ENERO de 2019, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Jesús Mª Zaballos de Llanos, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1. – DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAREN ETA LASARTE-ORIAKO UDALAREN ARTEKO KUDEAKETA GOMENDIOAREN HITZARMENA ONESTEA, LAN-POLTSA KOMUN BERRIEN KUDEAKETA MODU BATERATUAN EGITE ALDERA.

1.- APROBACIÓN DEL CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTIÓN ENTRE LA ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN Y EL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA, PARA LA GESTIÓN UNIFICADA DE LAS NUEVAS BOLSAS DE TRABAJO CONJUNTAS.

Ikusirik Barne Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentasuneko Batzorde Informatiboak, 2019ko urtarrilaren 3ko bilkuran emandako diktamina.

Visto el dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia, en sesión celebrada el 3 de enero de 2019.

Euskadiko Musika-Eskolen Elkartean egindako bileren fruitu, eta gaur egun indarrean dauden lan-poltsak berritu/handitu beharra ikusta, Kudeatzeko Gomendioaren teknika erabiltzea planteatzen da, 2019-2021eko lan-poltsa komun berriak modu bateratuan kudeatzeko. Eskola sustatzailea Donostiako Udalaren Musika eta Dantzako Eskola izango da, eta beharrezkoa da dagokien hitzarmena izenpetzera doazen udaletako bakoitzaren udalbatzarrak

Fruto de las reuniones mantenidas en la Asociación de Escuelas de Música de Euskadi y ante la necesidad de renovar/ampliar las bolsas actualmente vigentes, se plantea la utilización de la técnica de la Encomienda de Gestión para gestionar de forma unificada las nuevas bolsas de trabajo conjuntas 2019-2021. La escuela promotora será la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia-San Sebastián, siendo necesario que cada uno de


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

erabakia hartzea enkargu hori onetsiz.

los Ayuntamientos que vayan a suscribir el convenio pertinente adopte un acuerdo plenario aprobando dicho encargo.

Hitzarmena sinatzeak berekin ekarriko du Lasarte-Oriako Udalak obligazio jakin batzuk bete beharra, bidali den zirriborroan esplizituki zehazten diren gaiei buruzkoak, hala nola datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa, bere enplegatu publikoek hautaprozesuko balorazio-batzordeetan parte hartzea, eta aurkeztutako onarpen-eskaerak erregistratzea.

La firma del convenio llevará implícito el cumplimiento de determinadas obligaciones por parte del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, relativas a la confidencialidad y a la protección de datos personales, a la participación de sus empleados públicos en las diferentes comisiones de valoración del proceso selectivo y al registro de las instancias de admisión presentadas, que se explicitan en el borrador que se ha remitido.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, AHO BATEZ, honako akordioa hartzen du:

Sometidas a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD, toma el siguiente acuerdo:

**Lehena eta bakarra.-** Musika-eskolen lan-poltsa komun berriak modu bateratuan kudeatzeko gomendioa Donostiako Udalaren Musika eta Dantzako Eskolari esleitzea, harekin dagokion hitzarmena izenpetuz, zeinaren zirriborroa erantsirik baitoa eta zeinetan jasotzen baitira Lasarte-Oriako Udalak hauta-prozesuan zehar bere gain hartu beharreko obligazioak onestea.

**Primero y único.-** Aprobar la encomienda de gestión a la Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia-San Sebastián para la gestión unificada de las nuevas bolsas de trabajo conjuntas de Escuelas de Música, suscribiéndose con aquella el convenio cuyo borrador se adjunta, en el que se recogen las obligaciones a asumir por parte del Ayuntamiento de Lasarte-Oria a lo largo del proceso selectivo.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

2. – EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: "IÑAKI ERRAZKIN ETA AINHOA INTXAURRANDIETAREN ALDEKOA".

2.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU: "EN APOYO DE IÑAKI ERRAZKIN Y AINHOA INTXAURRANDIETA".

EH BILDU-k hurrengoa aurkezten du bere onarpenerako:

*ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

Espainiako Kontu Auzitegiak urriaren 10ean ateratako sententzia dela, zeinean Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrandietak egindako kudeaketa babesten duela, Lasarte-Oriako EH Bildu Udal Taldeak ondoko Adierazpen Instituzionala onartzea proposatzen du:

- Lasarte-Oriako Udalak Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrandietari gure elkartasuna eta babesa helarazi nahi die modu pertsonal batean. Mina eta sufrimendua eragiten duten egoerei aurre egin beharra ez diogu inori desio. Horregatik, funtsezko iruditzen zaigu, herritar guztien eskubideak ziurtatuko dituen justizia demokratikoa baliatuz bidezko ebazpenak bermatzea.

- Era berean, ardura publikoak ditugunoi, interes orokorraren eta elkarbizitza sozial eta politikoaren defentsan jardutea exijitu behar zaigu. Uneak arduraz jokatzea eskatzen du, eta hala dagokigu.

- Instituzioetan ardurak ditugunok politika interes pertsonaletatik kanpo utzi behar dugu. Hau kontuan izanik, egindako irakurketa ez litzake interes politikoetarako erabili behar.

*********************************************

*DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

Considerando la sentencia dictada por el Tribunal de Cuentas de España, con fecha de 10 de octubre, respaldando la gestión realizada por Iñaki Errazkin y Ainhoa Intxaurrandieta, el Grupo Municipal de EH Bildu de Lasarte-Oria presenta para su aprobación la siguiente Declaración Institucional:

- El ayuntamiento de Lasarte-Oria muestra su apoyo personal y solidario a Iñaki Errazkin y Ainhoa Intxaurrandieta. Como asunto personal, no deseamos que nadie tenga que enfrentarse a situaciones que provoquen sufrimiento y dolor. Por eso, es fundamental exigir una Justicia Democrática y garantista de los derechos de todos los ciudadanos que garanticen a su vez resoluciones justas.

- Asimismo se debe exigir a todos los responsables públicos actuar con responsabilidad en defensa de los intereses generales y de la convivencia social y política. Es el momento de actuar con altura de miras. Todos los que tenemos responsabilidades y cargos en las Instituciones, debemos dejar el interés personal al margen del interés político.



Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F

- Toda la lectura que se haga de lo anteriormente señalado, no debe ser utilizado como instrumento político siguiendo el hilo de lo comentado en cuanto a la diferenciación entre interés personal y político.

Barrio jaunak jarraitzen du hitzarekin eta esaten du mozio honen asmoa babes pertsonala ematea dela, bai Iñaki Errazkini eta Ainhoa Intxaurrandietari. Horregatik eztabaidarako dauden txandetan ez dutela parte hartuko dio, babes humanoko proposamen moduan ulertzen bait dute adierazpena.

Bozkatzera jarrita, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko sei botorekin (3 EH BILDU, 3 ADLOP) eta kontrako hamar botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 1 PP), **BAZTERTU** egiten du hura.

Sometida a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con seis votos a favor (3 EH BILDU, 3 ADLOP) y diez votos en contra (7 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 1 PP), **RECHAZA** la misma.

*********************************************

18:52 direnean, aretora sartu da Bernal andrea, eta, beraz, aurrerantzean, bozketei dagokienez, kopuruz 17 dira bildutakoak, Udalbatza izatez eta zuzenbidez osatzen duten 17etatik.

Cuando son las 18:52 horas, entra en la sala la Sra. Bernal, por lo que en lo sucesivo y a efectos de votaciones, son 17 el número de asistentes, de los 17 que de hecho y derecho forman la Corporación.

*********************************************

Boto azalpenean hurrengo zinegotziak hartzen dute parte: EAJ-PNV Udal Taldeko Bozeramailea, Antxordoki jauna; EH BILDU Udal Taldeko Bozeramailea, Barrio jauna; Udal Talde Sozialistako Bozeramailea, Acevedo andrea.

En explicación de voto intervienen los concejales: Sr. Antxordoki, Portavoz del Grupo Municipal EAJ-PNV; el Sr. Barrio, Portavoz del Grupo Municipal de EH BILDU; la Sra. Acevedo, Portavoz del Grupo Municipal Socialista.

## 3.– GALDERA ETA ERREGUAK.

## 3.-RUEGOS Y PREGUNTAS.

Puntu honetan honako zinegotziek hartzen dute parte: EH BILDU Udal Taldeko Bozeramailea, Barrio jauna. Alkate jaunak honek egindako galdera eta erreguei erantzuten die.

En este punto intervienen los concejales: Sr. Barrio, Portavoz del Grupo Municipal EH BILDU. El Sr. Alcalde responde a las preguntas y ruegos realizados por este.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:15 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:15 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.


Kale Nagusia 22, 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | ✆ 0034 943 376055 | ✉udala@lasarte-oria.eus | IFZ/NIF P2009500F